

IKASBIDE KULTUR ELKARTEA
ESTATUTUAK

IKASBIDE KULTUR ELKARTE

ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENDAPENA

1.- artikulua.- Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Lege eta 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera Donostiako Ikasbide Kultur Elkartearen estatutu hauek (erregistro-zenbakia: AS.R.P.G. -00326, 1966ko urriaren 27an inskribatua), aldatu egin dira.,2009ko martxoaren 4an egindako ezohiko batzarrean.

Elkarte honek irabazi-asmorik gabeko arau hauek izango ditu: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek, legearekin kontraesanean ez dauden heinean; elkartearen gobernu-organoek baliozkotasunez hartutako erabakiak, betiere legearen eta/edo estatutuen aurkakoak ez badira; eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako ordezkotza izatera duten erregelamenduzko xedapenak.

PROPOSATZEN DIREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkartearen helburuak hauek dira:

- Euskal hizkuntza eta kultura sustatzea eta garatzea.
- Euskararen irakaskuntza sustatzea.
- Kultura-, kirol- edo jolas-arloko beste jarduera batzuk bultzatu eta koordinatzea.

Legez ezarritako baldintzak bete ondoren eta jarduera horiei kalterik egin gabe kultura-, gastronomia-, jolas- eta prestakuntza- jarduerak egingo dira helburu horiek lortzeko, eta elkarteak bere helburuak betetzeko, honako hauek egin ahal izango ditu:

- Era guztietako jarduera ekonomikoak garatu, helburuak betetzeko edo helburu horrekin baliabideak biltzeko.
- Mota guztietako ondasunak eskuratu eta eduki, edozein dela ere titulua, eta

genero guztietako egintzak eta kontratuak egin.

•Legeen edo estatutuen arabera, era guztietako ekintzak gauzatu.

ELKARTEAREN HELBIDEA

3. artikulua.- Elkaratearen egoitza nagusia Donostiako Amara-Berriko Isabel II.a kaleko 15. zenbakian dago.

Batzar Nagusiak hala erabakitzen duenean, elkarateak autonomia-erkidegoan edo hortik kanpo, beste lokal batzuk eduki ahal izango ditu

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.- Elkarateak nagusiki zein lurralde-eremutan garatuko dituen bere jarduerak: Amara-Anoeta eta inguruko eremuetan.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- VI. kapituluaren ezarritakoaren arabera, elkaratea modu iraunkorrean eratzen da, eta Ezohiko Batzar Nagusiaren erabakiz edo legeetan aurreikusitako edozein arrazoiengatik bakarrik desegin ahal izango da.

Aniztasuna erabat errespetatuz, elkaratearen barne-antolaketa eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute. Elkaratea eratzeko oinarritzko eskubidearen edozein alderdi ezagutzen ez duten itun, estatutu-xedapen eta akordioek ez dute balioko.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO -ORGANOAK

6. artikulua.- Elkaratearen gobernu eta administrazioa kide anitzeko organo hauen ardurapean egongo da:

- Bazkideen Batzar Nagusia, organo gorenarenpean.
- Zuzendaritza Batzordearenpean, kide anitzeko zuzendaritza-organo iraunkorra izanik.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Nagusia, bazkideen borondatea adierazteko organoa da, eta bazkide guztiek osatzen dute.

Hauek dira Batzar Nagusiaren ahalmenak:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desegitea.
- f) Lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria eta diruzaina hautatu eta kargutik kentzea, eta, halakorik balego, kide anitzeko gobernu-organoko gainerako kideak ere bai, baita horiek gainbegiratu eta kontrolatzea ere.
- g) Beste elkarte batzuekin federatzeko eta konfederatzeko egintzak egitea, edo elkarteren bat uztea.
- h) Ondasun higiezinaren xedapena eta besterentzea onartzea.
- i) Gobernu-organoko kideen ordainsari-akordioa, hala badagokio.
- j) Kuota arruntak edo apartekoak finkatzea; hala ere, ahalmen hori Batzar Nagusiak eskuordetu ahal izango dio gobernu-organuari, berariazko akordio baten bidez.
- k) Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiaren aurrean errekurtsoa aurkeztuz gero, elkartekideak behin betiko kargutik kentzeko erabakia hartzea,
- l) Beste organo sozial bati esleitu ez zaion beste edozein eskumen bereganatzea, bai eta estatutu hauetan berariaz jasotako beste edozein eskumen ere

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak edo ez ohiko bilkurak egingo ditu.

9. artikulua.- 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan aurreikusitako erabakiak hartzeko, behintzat, Batzar Orokorrerako deia ohiko bileran egin beharko da, gutxienez urtean behin, lehenengo hiruhilekoan,

10. artikulua.- Batzar Nagusia ezohiko bilkuran bilduko da Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen duenean, dela bere ekimenez, dela elkartekideen laurdenak hala eskatzen duelako, bileraren arrazoiak eta amaiera adieraziz, eta, nolana ere, honako gai hauek aztertu eta erabakitzeko:

- a) Estatutuaren aldaketak.
- b) Elkartea desegitea.

11. artikulua.- Batzar Nagusien deialdiak elkartearen iragarki-oholean argitaratuko dira, eta idatziz (posta elektronikoz edo posta arruntez) bidaliko dira bazkideen helbidetara, bilera non, zein egunetan eta zein ordutan egingo den adierazita, bai eta gai-zerrenda ere, aztertu beharreko gaiak zehatz-mehatz adierazita. Deialdiaren eta batzarra egiteko ezarritako egunaren artean, lehenengo deialdian, gutxienez hamabost eguneko tartea egon beharko da, eta, hala badagokio, batzarra bigarren deialdian biltzeko eguna eta ordua ere adierazi ahal izango dira, baina batzarraren artean ezin izango da ordu erdi baino gutxiagoko eperik egon.

Batzar Orokorrak, ohikoak zein apartekoak, baliozko eran eratuta geratuko dira lehenengo deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen herenak parte hartzen duenean, eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratutakoen edo ordezkaturakoen gehiengo soilez hartuko dira, hau da, baiezko botoak ezezkoak baino gehiago izanda. Hala ere, bertaratutakoen edo ordezkaturakoen gehiengo kualifikatua beharko da, eta baiezko botoak baliozkotasunez emandakoen erdiak baino gehiago beharko dute izan, honako erabaki hauek hartzeko:

- a) Elkartea desegiteko.
- b) Estatutuak aldatzeko.

- c) Ondasun higiezinak xedatu edo besterentzeko.
- d) Ordezkaritza-organoko kideen ordainsariak erabakitzeko

13. artikulua.- Batzar Orokorretara joateko bazkideek beste edozein bazkideri eman diezaiokete beren ordezkariak. Ordezkaritza hori bazkidearen titulartasuna duenak emango du. Horretarako, botoa idatziz eskuordetuko du, posta arruntez edo elektronikoz, eta bilkura egin baino ordubete lehenago gutxienez, batzarreko idazkariaren esku egon beharko du.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua.- Batzar Nagusiaren xedapen eta zuzendarauen arabera, Zuzendaritza Batzordea elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen ordezkari-organoa da. Ordezkaritza-organoko kide elkartekideak bakarrik izan daitezke.

Zuzendaritza Batzordea 12 pertsonen osatuko dute: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria eta diruzaina gehi 8 kidek.

Gutxienez hamabost egunetan behin bildu beharko dute, baita gizarte-jarduerak ondo egiteko beharrezkoa den guztietan ere.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideak, justifikatutako arrazoirik gabe, aipatutako bileretara 3 aldiz jarraian edo 6 aldiz txandaka ez joateak dagokion kargua uztera behartuko ditu, falta larritzat joko baita.

16. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea osatzen duten karguak, bazkide boluntarioen artean nahikoa boluntariorik ez badago prest kargua hartzeko, Batzar Nagusiak aukeratu ditu, zozketa bidez aurreko 10 urteetan kargu hori izan ez duten 70 urtetik beherako bazkideen artean. Kargu hori bi urterako izango da, Batzar Nagusiak berriaz errebokatu ezean, eta gehienez ere 6 urtez jarraian berrautatu ahal izango da.

Zozketa eginez gero, nahitaezkoa izango da kargua onartzea, eta, beraz, kargua nahi ez duen bazkideak honako hauek aukeratu beharko ditu: (i) ordezkaria; (ii) bazkide izateari uko egitea.

Ohiko Batzar Orokor bakoitzean Zuzendaritza Batzordearen erdia berrituko da, eta, horrez gain, 6 ordeko bazkide izendatuko dira, Zuzendaritza Batzordeko kideen bajak ordezteko, eta ordezkapen-ordena bertan ezarriko da.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbesteko baldintzak dira:

- a) Adinez nagusia izatea, eskubide zibilen erabilera osoan egotea eta indarrean dagoen legerian ezarritako bateraezintasun-arrazoien eraginpean ez egotea.
- b) Estatutueta aurreikusitako moduan izendatzea.
- c) IKASBIDE KULTUR ELKARTEKO bazkide izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide kargua hartuko da, behin Batzar Nagusiak izendatutakoan, hau da onartutakoan edo karguaz jabetutakoan.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dute kargua:

- a) Agintaldiaren epea amaitzean.
- b) Zuzendaritza Batzordeak behar bestekotzat jotzen duenean.
- c) Bazkide izateari utzi edo ezintasun-egoeran dagoenean.
- d) Estatutu hauetako 16. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz Batzar Nagusiak erabakitakoan
- e) Hilez gero.

Kargu-uztea a) idatz-zatian aurreikusitako kausagatik gertatzen denean, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute hurrengo Batzar Orokorra egin arte, eta bertan kargu berriak hautatuko dituzte.

Batzar Nagusiak, ezarritako hurrenkeraren arabera, b), c), d) eta e) kasuetan, ordeko izendatutako bazkideak, Zuzendaritza Batzordeak berak sartuko ditu batzar orokorrean edota ez ohikoan.

Organo horren osaeran gertatzen diren aldaketa guztiak Elkartearen Erregistroari jakinaraziko zaizkio.

20. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak honako hauek dira:

- a) Batzar Nagusiaren jarraibideen arabera, eta haren kontrolpean, elkartearen ohiko kudeaketa zuzentzea.
- b) Elkarateak garatu beharreko jarduerak programatzea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Nagusiari onartzea.
- d) Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrenda egitea, eta ohiko eta ezohiko batzar orokorretarako deialdia egitea erabakitzea.
- e) Horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz, bazkideek egindako proposamenei edo iradokizunei erantzutea.
- f) Estatutu hauetan jasotako arauak interpretatzea eta haien hutsuneak betetzea, betiere elkartearen arloan indarrean dagoen lege-araudia kontutan hartuta.
- g) Batzar Nagusiak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere bere eskumen eskusibokoak ez badira.
- h) Estatutu hauetan berariaz jasotako beste edozein, eta, bereziki, estatutu hauen 32. artikulutik 36. artikulura bitartean ezarritako zehapen-araubidea aplikatzea.

21. artikulua.- Bere ekimenez edo edozein kidek eskatuta, Zuzendaritza Batzordeak lehendakariak erabakitzen duen guztietan egingo ditu bilkurak. Batzordeburua lehendakaria izango da, eta, bera ez badago, lehendakariordea, eta, biak falta badira, batzordekide zaharrena.

Batzordearen erabakiak baliozkoak izan daitezen, bertaratutakoen botoen gehiengoz hartu beharko dira, eta kideen erdiak bertaratu beharko dira. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren botoa kalitatezkoa izango da.

Idazkariak bilkuren akta egingo du, eta dagokion liburura transkribatuko du.

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

LEHENDAKARIA

22. artikulua.- Elkarteko lehendakariak bere gain hartuko du elkartearen legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak betearaziko ditu, bera izango baita Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria.

23. artikulua.- Lehendakariak honako ahalmen hauek izango ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak egiten dituzten bileretarako deia egin eta bilera horiei amaiera emateko, bataren eta bestearen eztabaidak zuzentzeko, eta, Zuzendaritza Batzordearen bozketetan berdinketa gertatuz gero, bere botoarekin erabakitzeko.
- b) Elkartearen jarduera-plana Zuzendaritza Batzordeari proposatzeko, bere zereginak bultzatuz eta zuzenduz.
- c) Egiten den lehenengo bilkuran premiaz sor daitezkeen arazoak ebatzi, eta Zuzendaritza Batzordeari horren berri emateko.
- d) Batzar Nagusiak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzeko, haren eskumen eksklusibokoak ez badira behintzat.
- e) Estatutu hauetan espresuki jasotako beste edozein gauza erabakitzeko.

LEHENDAKARIORDEA

24. artikulua.- Aldi baterako karguan aritzea ezinezkoa bada, Lehendakariordeak bere gain hartuko ditu lehendakariari laguntzeko eta hura ordezkatzeko eginkizunak. Halaber, batzordeburuak berariaz eskuordetutako ahalmen guztiak egokituko zaizkio.

IDAZKARIA

25. artikulua.- Idazkariaren ardurak zehazki hauek izango dira: elkartean sartzeko edo baja emateko eskaerak jaso eta izapidetzea; itxaron zerrenda argitaratzea eta fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua eraman eta zaintzea;

Akta Liburua idatzi, eta baliozko zehazpenen bat izanez gero ikerketa-espedita egitea; Zuzendaritza Batzordeak bazkide bat behin betiko kanporatzeko hartutako erabakiaren aurkako errekurtoa aurkeztuz gero Batzar Nagusirako txostena egitea, eta estatutu hauetan jasotako beste edozein gauza ere burutzea.

Halaber, elkartearen arloan indarrean dauden legeko xedapenak betetzen direla zainduko du; Elkartearen dokumentazio ofiziala zainduko du; liburu eta artxibo sozialen edukia ziurtatuko du, eta Zuzendaritza Batzordeak izendatzeari eta helbide soziala aldatzeari buruzko nahitaezko komunikazioak agintari eskudunei igorriko dizkie.

Idazkariak gaitasuna izan beharko du bere eginkizunak euskaraz nahiz gaztelaniaz betetzeko.

DIRUZAINA ETA BOKALAK

26. artikulua.- Diruzainak sarreraren eta gastuen urteko aurrekontua, bai eta aurreko urteko kontuen egoera-orria ere formalizatuz, egindako diru-sarrerak eta ordainketak jakinaraziko ditu,. Horiek Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu beharko dizkio, eta hark Batzar Nagusiari hauek onar ditzan.

Bokalak Zuzendaritza Batzordearen bileretara joango dira, elkartearen gaiei behar bezalako arduraz eta eraginkortasunez erantzuteko, hark ematen dizkien betebeharrak bere gain hartuko dituzte.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTZEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURAK ETA MOTAK.

27. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du bazkide kopurua..

Elkarteko kide izan daitezke hala nahi duten eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- Adin nagusikoa edo adingabeko emantzipatua izatea, eta beren eskubideak baliatzeko inolako lege-baldintzaren mende ez egotea, eta beren gaitasuna ebazpen judizial irmo baten bidez mugatuta ez edukitzea.

Elkarteko bazkideak arruntak edo ohorezkoak izan daitezke.

Bazkide arruntak honako hauek izan daitezke:

- Bazkide arrunt gazteak: 26 urtetik beherakoak. "Gazte" kuota ordainduko dute.
- Bazkide arrunt helduak: 26 urte edo gehiago dituztenak. Kuota "arrunta" ordainduko dute.
- Familiako bazkide arrunta: "Familiako" kuota ordaintzea erabakitzen duten familia-unitateak. Familia-unitatea bi bazkide gisa zenbatuko da ondorio guztietarako, eta biak izango dira estatutu hauetan ezarritako eskubide eta betebeharrak guztien titularrak.

"Sarrera-kuota" ez ordaintzearen eta itxarote-zerrendatik ez pasatzearen onurarekin, familia-unitate bateko kide diren adingabeek, adin-nagusitasuna betetzean eta 23 urte bete baino lehen, "Bazkide arrunt gazte" izatera pasatzeko aukera izango dute, 23 urte betetakoan, ohiko bidetik sartzeko eskatu beharko du, "Sarrera-kuota" ordainduz eta itxarote-zerrendatik pasatuz, halakorik balego.

Elkartek, Batzar Orokorraren erabakiz eta Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, Ohorezko bazkide-izaera eman ahal izango die bazkide izan eta elkartearekin lankidetzan aritzeagatik nabarmendu diren pertsoneri.

28. artikulua.- Elkarteko kide izan nahi duenak idatziz eskatu beharko du, eta berariaz adierazi beharko du bi bazkideek abalaturik, estatutuok eta barne-araubideko erregelamenduak onartzeko konpromisoa, Lehendakariari bidaliko dio eskaera, eta hark horren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari. Azken horrek hilabete batez iragarki-taulan eta web orrian argitaratuko du eskaera, edozein bazkidek aurka egin ahal izateko edo alegazioak aurkezteko. Epe hori igarotakoan, Zuzendaritza Batzordeak onartu edo ez erabakiko du, eta gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango du Batzar Nagusian.

Zuzendaritza Batzordearen ustez gehieneko bazkide kopurua beteta balego, eskaera hori itxaron-zerrenda batean sartuko litzateke, eta zerrenda hori publikoa izango litzateke une oro.

Bazkideen bajak, heriotzak ... direla medio, hauek utzitako hutsuneak itxarote-zerrendako eskatzaileek beteko dituzte, eskaera egindako data kontuan hartuko delarik..

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

29. artikulua.- Elkartekide guztiek honako eskubideak izango dituzte:

1. Berrogei egun naturaleko epean, elkarteen Legearen edo Estatutuen aurkako erabaki eta jarduketak aurkaratzeko eskubidea, auzipeko erabakiaren edukia ezagutu edo ezagutzeko aukera izan duenetik kontatzen hasita.
2. Elkartearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, kontuen egoerari eta jardueraren garapenari buruzko informazioa jasotzekoa.
3. Datu pertsonalak babesteko araudian aurreikusitako moduan, edozein unetan, elkarteko gainerako kideen nortasuna, urteko sarreraren eta gastuen kontuen egoera-orria eta elkartearen jardueraren garapena ezagutzekoa.
4. Batzar Nagusietarako deia jaso, eta bertan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta, horretarako, beste kide batzuei ordezkaritza ematekoa.
5. Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organoetan parte hartu, eta organo horietarako hautesle eta hautagai izatekoa.
6. Indarrean dagoen legerian aurreikusitako bazkideen fitxategian agertu, eta elkartearen ikurra erabiltzekoa, halakorik egonez gero.
7. Estatutuen eta, egonez gero, barne-araubidearen erregelamenduaren ale bat eduki, eta eskaerak eta kexak zuzendaritza-organoetan aurkezteko eskubidea.
8. Taldeko ekitaldi sozialetan parte hartu, eta bazkideen erabilera komunerako elementuez gozatzekoa (lokal soziala, liburutegiak, etab.)

9. Diziplina-neurriak hartu aurretik entzuna izatea, ahoz edo idatziz, eta neurri horiek hartzeko arrazoen berri izatea. Arrazoi horiek bazkide gisa dituzten betebeharrak ez betetzean baino ezin izango dira oinarritu.

10. Edozein unetan baja ematea, betetzeke dauden hartutako konpromisoei kalterik egin gabe.

11. Sozietatearen lokalera sartzeko giltza eta txartela izatea, eta giltza hori besterenezina izatea.

12. Barne Araudiak agintzen duen bezala erabiltzea, Elkartearen instalazioak eta ekipamenduak, tresnak, lanabesak eta antzekoak.

13. Elkartearen instalazioetan ordenara deitzea ezarritako Barne Araudietako arauak betetzen ez dituen pertsona orori, bazkide izan ala ez.

30. artikulua.- Bazkideen betebeharrak hauek izango dira:

- a) Elkartearen helburuak partekatzea eta horiek lortzen laguntzea.
- b) Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Urteko Batzar Orokorrera joatea.
- d) Estatutuetatik eta barne-araubideko erregelamenduetatik ondorioztatzen diren gainerako betebeharrak betetzea, eta izendatuz gero, bereziki, Zuzendaritza Batzordeko kide izatea.
- e) Elkarteko gobernu-organismoek baliozkotasunez hartutako indarreko erabakiak onartzea eta betetzea.

BAZKIDE IZATEARI UTZIKO LIOKE

31. artikulua.- Honako kasu hauetan galduko da bazkide izaera:

1. Hilez gero.
2. Borondatez, bazkideak hala nahi izanda.
3. Estatutu hauetako 16. artikuluan ezarritakoaren arabera zozketa bidez esleitutako Zuzendaritza Batzordeko kide kargua betetzen ez badu..

4. Batzar Orokorrak erabakiz gero, Zuzendaritza Batzordeak proposatutako arrazoa nahikoa dela, hau da, estatutu hauetan ezarritako betebeharrak oso larriki hautsi edo eta bikotekidearengandik

banantzea.

ARAUBIDE ZIGORTZAILEA

32. artikulua.- Estatutu hauetan ezarritako prozeduren arabera , estatutuak, Batzar Nagusiaren erabakiak, Zuzendaritza Batzordearen erabakiak edo Barne Araubideko Erregelamenduen arauak hausteagatik, Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Orokorrak elkartekideak zigortu ahal izango ditu.

Arau-haustek gertaeren eta inguruabarren arabera, arinak, larriak edo oso larriak izanen dira, eta Arau-haustek zigortzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: i) arau-haustearen larritasuna; ii) erruduntasun-maila; iii) intentzionalitatea ; iv) ekintzaren eragina eta omisioarena; v) arau-haustearen berrerortzea; eta vi) beste inguruabar astungarri edo aringarri batzuk zehapen-egintzarekin bat etortzea.

- **Arau-hauste arinak** ohartarazpen pribatuz zehatuko dira, edo elkartearen instalazioetara sartzeko debekua ezarriko da, egun 1etik 30 egunera bitartean.
- **Arau-hauste larrien kasuan**, elkartearen instalazioetara sartzeko debekua ezarriko da, hilabete batetik 6 hilabetera, etenik gabe.
- **Arau-hauste oso astunen kasuan**, elkarteko instalazioetara sartzen ez uzteko zehapena ezarriko da, 6 hilabetetik 24 hilabetera bitartean etenik gabe, edo, bestela, elkarteko kide izateatik behin betiko kendu eta berriro elkartera itzultzeko aukerarik ez zaio emango. Nolanahi ere, arau-hauste oso larritzat joko da eta bazkide izateari behin betiko utzi eta berriro elkartean sartzeko aukerarik ez du izango baldin eta: (i) Zuzendaritza Batzordeko kide zozketa bidez hautatu eta estatutu hauetako 16. artikuluan ezarritako bi aukeretako bat ere betetzen ez badu; (II) bazkideak Zuzendaritza Batzordeko kide izatea onartzen badu eta, ondoren, Zuzendaritza Batzordearen iritziaren arabera arrazoi justifikaturik gabe dimisioa aurkezten badu, edota 15. artikuluan ezarritakoaren arabera Zuzendaritza Batzordeko bileretara joaten ez bada, edo Zuzendaritza Batzordeko kide kargua benetan betetzen ez badu.

Arestian deskribatutako zehapenetako edozeinekin batera, zigor ekonomiko bat ere jarriko da, eragindako kaltearen zenbatekoa edo, halakorik balego, akats materiala ordaintzeko.

Arau-haustek mailakatzeko eta sailkatzeko erabakigarriak diren arau-haustearen erruduntasun-maila edo larritasun-maila kontuan izanik, arau-haustek eragindako kalteak konpondu edo kalteen zenbatekoak pagatu beharko dizkio, bai elkarteari bai beste edozein bazkideri ere.

Idazkariak parte hartu gabe (instrukzio-organoa delako), zehapenak ezartzeko eskumena Zuzendaritza Batzordeak izango du, eta aurretik interesdunari entzun beharko zaio. Erabaki hori arrazoitua izango da beti, eta haren aurka errekurtoa aurkeztu ahal izango da Batzar Nagusian.

Ezarritako zehapena irmoa denean, Zuzendaritza Batzordeak adieraziko du zein egunetan hasi behar duen arau-haustek Elkartearen instalazioetan sartzeko debekua betetzen.

33. artikulua. – Balizko arau-hausteren bat gertatuz gero, batzordeburuak idazkariari honakoa agindu beharko dio: (i) espediente bat irekitzeko; (ii) dagokion informazioa lortzeko, aurretiazko eginbide jakin batzuk egiteko, eta, informazio hori ikusita, lehendakariak jarduketak artxibatzea edo zehapen-espedientea hastea agindu ahal izango du.

34. artikulua. - Gertakariak egiaztatu ondoren, idazkariak behin betiko kanporatzeko zehapen-espedientea hasiz gero, (i) interesdunari idazki bat bidaliko dio, egozten zaizkion karguak azaltzeko. Hamabost eguneko (ii) epean, egokitzen jotzen duena alegatuz erantzun ahal izango die kargu horiei, eta, era berean, zehapen-espedientea 15 egunez bere esku jarri dela jakinaraziko die. Epe hori igaro ondoren, gai hau Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da, eta horrek bidezkoa dena erabakiko du (behin betiko kanporatzea, edo aldi baterako kanporatzearekin zigortzea, edo espedienteak inolako zehapenik gabe artxibatzea), hau guztia idazkariaren botorik gabe, azken horrek instrukzio-egile gisa jardun baitu.

Nolanahi ere, behin betiko kanporatze-erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, eta jakinaraziko zaio haren aurka errekurso-idazkia aurkeztu ahal izango duela egiten den lehenengo batzar orokorrean. Hiru hilabetean ez bada deirik egiten, Ezohiko Batzar Nagusi eskusiboa egin beharko da. Bien bitartean, Zuzendaritza Batzordeak erabaki ahal izango du zehapena jaso duen pertsonari bazkide gisa dituen eskubideak etetea, eta Zuzendaritza Batzordeko kide izanez gero, kargutik kendu beharko du.

Batzar Nagusian errekurtsio-idazkia aurkeztuz gero, behin betiko kanporatze-espeditentea Batzar Nagusiari helaraziko zaio. Batzarrak dagokion erabakia hartzeko idazkariak haren laburpen bat idatziko du, Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiari zigortutako pertsonak aurkeztutako errekurtsio-idazkiari buruzko berri eta gertakarien berri emanez.

35. artikulua.- Batzar Nagusian aurkeztutako errekurtsioaren ebazpena, beti arrazoitua izango dena, interesdunari jakinarazi beharko zaio, eta hark auzitegietara jo ahal izango du dagokion eskubideaz baliatuz, hura legearen edo estatutuen aurkakoa dela uste badu.

36. artikulua.- Zehapen baten ondorioz bazkide bati elkartetik behin betiko kanporatua izan dela jakinaraztean, hala badagokio, elkartearekiko dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

FUNDAZIOAREN ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAU BIDEA

37. artikulua.- Elkartearen fundazio-ondarea egoitza soziala da: Isabel II, 15, Amara, Donostia.

38. artikulua.- Elkarteak gizarte-jarduerak garatzeko aurreikusitako baliabide ekonomikoak honako hauek izango dira:

- a) Sarrera-kuotak
- b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- c) Dagozkion ondasun eta eskubideen produktuak, bai eta legez jaso ditzaketan diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak ere.
- d) Elkarteak Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen dituen legezko jardueren bidez lortzen dituen diru-sarrerak, betiere estatutu-helburuen barruan.

Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urterokoa izango da, eta urtero abenduaren 31n itxiko da.

Elkarteak jarduera ekonomikoak gauzatzearen ondorioz lortutako onurak, zerbitzu-prestazioak barne, bere helburuak betetzeko baizik ez dira erabiliko, eta ezin izango dira inola ere banatu elkartekideen artean, ez haien ezkontideen artean, ez eta haien senideen artean ere, ez eta irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo

juridikoei doan utzi ere.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

39. artikulua.- Horretarako helburuarekin deitutakoan, estatutu hauetako 10. artikuluko baldintzak betez Estatutuak aldatzea bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki beharko da. Edonola ere, Ohiko Batzar Orokorrak 3 bazkidek osatutako batzorde txostengile bat izendatu ahal izango du, hark emandako jarraibideei jarraituz, Aldaketa Proiektua idatz dezan eta berak zehaztuko du proiektua amaitzeko epea.

40. artikulua.- Adierazitako epean Aldaketa Proiektua idatzi ondoren, lehendakariak egingo den lehenengo Zuzendaritza Batzordearen gai-zerrendan sartuko du, eta horrek onartu egingo du edo, bestela, ponentziara itzuliko du berriro aztertua izan dadin.

Zuzendaritza Batzordeak aldaketa Proiektua onartzen badu, egingo den hurrengo Ezohiko Batzar Orokorreko gai-zerrendan sartzea, edo horretarako deitzea erabakiko du.

41. artikulua.- Batzar Orokor Berezirako deialdiarekin batera Estatutuen aldaketaren testua aurkeztuko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzara bidal ditzaten. Zuzenketa horien berri Batzar Orokor Bereziari emango zaio, baldin eta bilkura baino zortzi egun lehenago Idazkaritzaren esku badaude.

Zuzenketak banaka edo taldeka egin ahal izango dira, idatziz egingo dira eta beste testu baten alternatiba jasoko dute. Zuzenketak bozkatu ondoren, ezohiko batzar orokorrak estatutuak aldatzeko erabakia hartu ahal izango du, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen direnetik, erabaki horrek hirugarrenen aurrean ondorioak izango ditu,

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA GIZARTE-ONDAREA APLIKATZEA

42. artikulua.- Elkartea desegin egingo da:

1. Bazkideen borondatez, horretarako deitutako Ezohiko Batzar Orokorrean adierazitakoan.
2. Estatuetan finkatutako epea edo baldintza betetzean.
3. Beste elkarte batzuekin bat egitean
4. Legez ezarritako gutxieneko elkartekide-kopururik ez izatean.
5. Desegitea erabakitzen duen epai judizial irmoa dagoenean.
6. Sozietatearen helburuak betetzeko ezintasuna dagoenean.

43. artikulua.- Elkartea deseginez gero, desegitea erabakitzen duen ezohiko batzar orokorrak batzorde likidatzaile bat izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza Batzordetik ateratako 7 kidek osatuko dute, eta dagoen diruaz arduratuko dira.

Bazkideekiko eta hirugarren pertsonetikiko betebeharrak sozialak bete ondoren, halakorik balego, irabazi asmorik gabeko Donostiako ongintza edo kultur jardueretarako, desegindakoaren antzeko ezaugarriak dituen entitate bati emango zaio soberako ondare soziala.

AZKEN XEDAPENA

LEHENENGOA: Zuzendaritza Batzordea izango da Estatutu hauetan jasotako aginduak interpretatzeko eta hutsuneak betetzeko organo eskuduna. Beti egongo da elkartearen arloan indarrean dagoen legediaren mende, eta egiten den lehen Batzar Nagusiari jakinaraziko dio, onar dezan.

BIGARRENA: Bakoitzaren eskumenen esparruan eta bosgarren kapituluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Estatutu hauek Batzar Orokorrek balioz hartzen dituen erabakien bidez aldatuko dira.

HIRUGARRENA: Estatutu hauek garatzeko, Zuzendaritza Batzordeak Barne Araubideko Erregelamendu bat onetsi ahal izango du Elkarreak egiten duen jarduerara esparru bakoitzeko (adibidez, sukaldea eta jantokia, danborrada eta abar).), eta ez ditu inola ere aldatuko estatuetako aginduak.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA